

DOKTOREGO AURREKO PRESTAKUNTZA **KONTRATUETARAKO LAGUNTZEN DEIALDIA:** **(FPI 2021)**

Deialdiaren ezaugarriak

Ikerkuntzako Estatu Agentziak 1.091 laguntzatarako deialdia argitaratu du. Horietatik, 10 gorde dira % 33ko desgaitasuna edo handiagoa duten pertsonak kontratatzeko.

Laguntzen helburua da "Subprogrma Estatal de Formación" azpiprograman barruan deialdietan onartutako proiektuetako bati lotutako tesiak egitea.

[Esteka honetan](#) kontsulta daiteke laguntzak jaso litzaketen proiektuen zerrenda osoa.

Eskatzaileek bete beharreko baldintzak

Eskatzaileak izan daitezke 2021/2022 ikasturterako doktorego programa batean matrikulatuta egon edo onartuak izan diren pertsonak.

Ezin izango dira eskatzaileak izan baldintza hauetako edozein betetzen duten pertsonak:

- Doktorego aurreko prestakuntza hasi izana doktorego aurreko prestakuntzara bideratutako beste laguntza batzuetarako finantziazioaz Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Teknologikorako Plan Estatalaren edo aurreko Plan Nazionalen esparruan onartu eta garatutako doktorego tesi baten bidez.
- Doktore titulua izatea, Espainiako edo atzerriko edozein unibertsitatek emanda.
- 12 hilabetetik gorako doktorego aurreko kontratu bat eduki izana eskaera aurkeztu baino lehen.

Laguntzen ezaugarriak

Laguntzek gehienez lau urteko iraupena izango dute, eta I+G zentro kontratatzailean kontratatutako ikertzaileak beren lanpostuan hasten diren egunean hasiko da gauzatze-aldia.

Laguntzek bi kontzeptu izango dituzte:

- Kontratuak finantzatzeko laguntza
- Laguntza gehigarri bat, I+G zentroetan egonaldiak egiteak eta doktorego-irakaskuntzetako matrikulak eragindako gastuei aurre egiteko.

Kontratua finantzatzeko laguntzari dagokionez, doktoratu aurreko kontratu bakoitzerako urteko laguntza 21.100 eurokoa izango da lehenengo bi urteetako bakoitzerako, 22.300 eurokoa hirugarren urterako eta 27.900 eurokoa laugarren urterako.

Prestatzen ari diren doktoratu aurreko ikertzaileek gutxienez 16.640 euro gordin jasoko dituzte urteko lehenengo bi urtekoetarako, 17.830 euro hirugarren urterokorako eta 22.290 euro laugarren urterokorako. Ordainsari hori kontratu bakoitzean adierazi beharko da.

Eskaerak aurkezteko epea

2021eko urriaren 28tik azaroaren 11ra (14:00ak arte).

Eskariak Internetez aurkeztu behar dira, hurrengo aplikazioa erabilita:

[Aplikaziora sarbidea](#)

Behin prozesu telematikoa amaiturik, eskaera **sinatu eta erregistratu egin behar da** behar bezala aurkeztutzat jo dadin. Sinadura elektronikoa nahitaezkoa izango da Espainian bizi diren eskatzaileentzat.

UPV/EHUko izapidea

Eskatzaileak berak aurkeztu behar du eskaera, deialdiaren fase honetan ez baita beharrezkoa Ikerketaren arloko Errektoreordearen baimena.

Harremanetarako

Hautagaiek mezu elektronikoko bidez jo beharko dute Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Ministeriora: predoc.solicitud@aei.gob.es .

Informazio gehiago

[Deialdiaren webgunera sarbidea](#)